



# IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

**Ikastetxearen izena:**

Elejabarri HLHI

**Ikastetxearen kodea:**

014115

**Data:**

2022-2023 ikasturtea





# 1. SARRERA

## Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Elejabarri HLHI Bilboko 7. barrutiko Errekalde auzo multikulturalean kokatuta dagoen ikastetxe publikoa da. Gazteleku elkarteak helarazitako datuen arabera Bilboko indize sozioekonomiko baxuena duen auzoa da Errekalde.

Haur Hezkuntzako eta Lehen hezkuntzako etapak biltzen dituen D ereduko ikastetxe publikoa da Elejabarri HLHI, 90 ikasle inguruko ikastetxe txiki bat.

Kontuan izan behar da ikasleen ia %95-a bekaduna dela, % 54 ijito jatorriko familiak direla eta beste %46a jatorri desberdineko familiak dira: Afrika, Hego Amerika, Pakistan, besteak beste.

Elejabarri HLHI informazioaren gizarteak sortutako heziketa beharrezanean erantzuteko eraturako ikasketa komunitatea da. Ikasle bakoitzaren heziketan komunitate osoak parte hartzen du: familiek, irakasleek eta auzoko eragile ezberdinek. Ikaskuntza komunitate honen xedea ikasleen berdintasuna integrazioa eta ikaskuntza maila hobetzea da.

Beraz, Elejabarri HLHI ikas komunitateen proiektuan murgildurik dago, hau da, elkarrekin eta bata bestearengandik ikasteko, komunitate osoaren inplikazioa beharrezkoa da. Proiektu honen barnean hainbat dinamika garatzen dira; talde interaktiboak, tertulia literarioak eta familien formakuntza, besteak beste. Dinamika hauek inklusioaren aldeko apustu garbia dira eta modu sistematikoan lantzen dira zentro osoan.

Hezkuntza komunitate guztiak elkarbizitza hobetzearen alde egin du lan, elkarriketa bidezko arazoaren ebazpenean oinarrituz. "Biolentziarik gabeko eskola helmugatatzat jarrita, eskola eta familien arteko harremanak sendotzen joan ziren, elkarrekiko konfiantza ardatz jarrita. Kasu honetan aurrerapenak nabarmenak izan dira; babestuak sentitzen dira ikastetxean eta beraien eskubideak urratzen diren egoerak edo errespetu faltak salatzen dituzte.

Ikasturte honetan irakasle aldaketa handiak izan ditugu batez ere kurtso hasieran. 10 irakasle berri etorri dira eskolara horietako bi ordezkokoak (1 ikasturte bukaerarte 1 Gabonak arte) eta etorri diren berrien artean bi plaza behin betikoak izan dira. Hori dela eta, ikastetxean behin betiko plaza duten 5 irakasle eta behin behineko plaza duen irakasle 1 daude.

Zuzendaritza taldean aldaketa asko egon dira ikasturte hasiera honetan. Ikasketa burua eta Idazkaria berriak dira eta Zuzendaria kurtso hasieran amatasun baimenean dagoenez, hirukote berriak hasiko du ikasturtea. Esan beharra dago zuzendaritzan sartzen diren irakasleek oso ongi ezagutzen dutela eskola eta komunitatea, ez bait dira berriak eskolan.

## Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

Ikastetxea bi solairutan banatuta dago; Haur hezkuntza beheko solairuan eta Lehen Hezkuntza bigarrean. Lehen hezkuntzako ikasgela guztiak pantaila digitalak edo monitore interaktiboak dituzte, naiz eta horietako bat oso zaharkitua dagoen. Horrez gain, 2. eta 3. zikloko ikasle guztiak ordenagailu bana dute eta 1. zikloko ikasleek tablet bat.

Haur hezkuntzan aldiz, 4urteko zein 5 urteko geletan monitore interaktiboak dituzte baina 2 eta 3 urteko geletan ez dago ezer, irakaslearen ordenagailua bakarrik.

Lehendik aipatutako pantailaz gain, musika eta ingeleseko gelan monitore interaktibo bana dago.

## Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

DigCompEdu Europar Batasunak ikastetxeetako profesionalentzako adostu duen markoa da.

Europako estatu kide askok uste dute hezitzaileek gaitasun digital espezifikoen multzo bat behar dutela. Gaitasun horiei esker, teknologia digitalek hezkuntzan hobetzeko eta berritzeko duten potentziala aprobetxatuko dute. Hezitzaileen Gaitasun Digitalerako Europako Markoak (DigCompEdu) horri erantzuna ematen dio.

Eskolak plan digitalik ez duenez, ondo etorriko zaio plan hori garatzea.

Irakasle eta ikasleen trebetasun digitala hobetzeko asmoz egiten dugu, gizarteko egunerokotasun digitalera moldatzeko.

Plan honen bitartez lortu nahi ditugu:

- Ikastetxearen egoera ebaluatzea, teknologiei dagokionez.
- Plan Digital batek hezkuntza-erakundearen estrategia digitala planifikatzeko duen potentziala aitortzea.
- Zentroaren konpetentzia digitala hobetzea.
- Hezkuntza-komunitatea bere osotasunean inplikatzeko proiektuan.

#### **Elaborazio prozesua eta lan-taldea**

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Digitalizazio prozesuak apurka-apurka, ikastetxeko prozesuen digitalizazio-maila areagotu egingo du eta irakasleek ikasgeletan IKT erabiltzeko duten inplikazioa ere.

Horretarako, ikastetxeko BeA arduradunak IKT batzordearen laguntzaz, digitalizazio plana sortzen joango da 2022/23 kurtsoan zehar, horrela ikuspegi globala izan dezakegu, baliabideak izendatzeko eta ardurak banatzeko.

Digitalizazio prozesu egokia izateko, irakaslego guztiaren iritziak, proposamenak, balorapenak... kontutan hartuko dira guztion inplikazioa ezinbestekoa baita.

3 atal eta epe desberdinetan banatuko dugu Plan digitalaren elaborazioa.

1- ERABILERA SUSTATU

Irakasgai desberdinetako ikasteko materialak digitalizatzen hasiko dira.

Irakaslegoak ikastetxeko baliabide informatikoak erabiltzen sailatuko da: Informatika gela, ordenagailuak, arbela digitala, liburu digitalak, Office 365... eta hainbat hezkuntz-aplikazio gehiago.

Beharrezkoa izatekotan, formakuntzak prestatu egingo dira irakasleek erraminta digitalak gelan erabili ahal izateko.

## 2- IKASGELAK DIGITALIZATU

Gelan IKTen erabilera sustatuko da irakasgai guztietan Curriculumeko arloak lantzeko. Horretarako gela guztietan teknologia-baliabideak izan beharko dituzte eta Internetera egunero sartzeko aukera.

Ikastetxeko Web gunetik ere, kanpokoei ikastetxea eta gela barrutik erakusten zaie (web orrialdeak, blogak, intranet estranet, wikiak...).

Office 365-en erabilera sustatuko da bai klasean eta baita etxean ere. Ikasleek ikasteko materialak bertatik eskuratzeko, birpasoa egiteko materialak eta fitxak, klaseko ariketak, etxerako lanak bidaltzeko, irakasgaiei buruzko komunikazioak idazteko...

Ikastetxe-familia arteko komunikazioak sare sozialen bidez ( EJ-ren datuen babeserako gida kontuan izanda) egingo dira.


## 3- DIGITALIZAZIOAREN EBALUAKETA ETA HOBEKUNTZA

Behin digitalizazio programa martxan hasita, bidean sortzen diren kezkak, arazoak, gogoak... kontuan hartuko dira eta argituko dira, bai BeA arduradunen laguntzaz , zein zuzendaritza taldearen laguntzaz.

Kurtso amaieran, irakaslegoari, ikasleei eta familiei digitalizazio prozesuari buruzko ebaluaketa bat emango zaie haien iritsiak ezagutzeko. Modu honetan ikuspuntu zabalagoa lortuko dugu ahuleziak hobetu identifikatu ahal izateko eta hauei erantzun bat emateko hobetzeko helburuarekin.

### **Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena**

Ikastetxeko plan digitalak beste dokumentu batzuetan jasotako hezkuntza testuinguru zabalagoarekin bat etorri behar du, hala nola ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuarekin eta Ikastetxearen urteko planarekin, eta hiru dokumentuek bat etorri behar dute eta osagarriak izan behar dute.





## 2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.  
SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

DigCompOrg markoak ezarritako jarraibideen arabera, zentroaren egoeraren analisiak hiru dimentsioak hartuko ditu kontuan: pedagogikoa, teknologikoa eta antolamendukoa. Europako markoak 8 eremutan oinarritzen du ikastetxearen azterketa:

- A. Lidergoa.
- B. Kolaborazioa eta sareak.
- C. Azpiegitura eta ekipamenduak.
- D. Etengabeko prestakuntza profesioanala.
- E. Pedagogia: laguntzak eta baliabideak.
- F. Pedagogia: Ikasgelan aplikatzea.
- G. Ebaluazio-jarduketak.
- H. Ikasleen kompetentzia digitalak.

### **Eremuen laburpena**

Ondoren agertzen diren zenbakiak adierazten dute zuzendaritza-taldeko kideen, irakasleen eta ikasleen erantzunen batezbestekoa, eremu bakoitzari dagokionez.

## AMIA analisia

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

### Faktore negatiboak

#### Ahuleziak (barne-faktoreak)

- Irakaslearen formakuntza edo trebetasun falta IKTn erabileran.
- Kurtso bakoitzeko blog eza.
- Konpetentzia digitala hobetzeko esperientziak eta ezagutza trukatu ahal izateko momentuak irakasleen artean ez egoteak.
- Tutoretza planetan teknologia digitalak gaizki erabiltzeak dakartzan arriskuak txertatuta ez egoteak. Zibersegurtasuna.
- Eskolako domeinua izateak ekartzen dituen gastua eta lan gehigarria.

#### Mehatxuak (kanpo-faktoreak)

- Erabilera oker batek arriskuak dakartzala.
- Digitalizazioaren inguruan interes falta egoteak irakasle eta familien aldetik.
- Irakaslearen, ikasleen zein familien konpetentzia digital nahikoaren eza.
- Interneteko konexioa ez fidagarria eta motela izatea.
- Denbora falta egotea.

### Faktore positiboak

#### Indarguneak (barne-faktoreak)

- Eskolak baliabide digital nahiko izateak.
- 3. Mailatik gora gailu digitala ikasle bakoitzeko edukitzeak.
- IKTak erabiltzeko ikasleen gogoak.
- IKTen erabilpena ikasteko ikasleen trebetasunak.
- Eskolako helbideak, web orria, aplikazio digitalak...erabiltzeak.

#### Aukerak (kanpo-faktoreak)

- IKTen inguruan gaur egungo gizarteko umeen trebetasuna.
- Hezkuntza lege berriak digitalizazioa konpetentzia nagusitzat hartzea.
- Eguneroko lanetan IKT-ak txertatuta izatea.
- Dokumentazio guztia era digitalean izatea.
- Gurasoekin digitalki komunikatzea
- Sitea eta blogak izatea.
- Eskolako estrategia digitalaren sorreran kide askoren parte hartzea dagoenez, irakasleen inplikazio handiagoa egotea.
- Formazio egokiak topatzea.

### Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

#### Indarguneak optimizatu **aukerak** areagotzeko

- IKTen erabilpena ikasgeletan bultzatu.
- Eskolak dituen baliabide digitalei erabilpena eman.
- Irakaslekoa formatu baliabide digitalen erabilpenean.
- Ikasleen interesetatik abiatuz, baliabide digitalak erabili.

#### Ahuleziei aurre egin **aukerak** aprobetxatzeko

- Formakuntzak prestatu irakaslekoa IKTn trebatzeko.
- Blog bat sortu maila edo ziklo bakoitzeko.
- Tarteak bilatu ezagutza digitalak elkar trukatzeko.
- Ikasleak informatzea teknologien erabilpena dakartzan arriskuaz.

#### Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

- Ikaslegoari irakatsi zer nolako arriskuak gerta daitezke erabilpen oker baten ondorioz.
- Familiei eta irakasleei ere digitalizazioan trebatzeko aukera eman.

#### Ahuleziei eta **mehatxuei** aurre egin

- Formakuntza eta prestakuntza praktikoa jasotzea. Beharrezkoa da IKTaren erabilera egokia izateko, denak jakinaren gainean egotea eremu honetan.





### 3. HELBURUAK ETA EKINTZAK

#### LG Lidergoa eta gobernantza

##### Helburua

IUPean interneten eta gailu eta baliabide digitalen erabilera egokia bermatzen duten helburua zehaztea.

Deskriptorea	Epea	
LG 1.2 Ikaskuntza digitalerako teknologien alde onak komunikatzen dira	2024-2025 ikasturtea	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 1.2 A1 Proiektu digitala hezkuntza komunitate osoak onartu du ( irakasle-taldeak, eskola-kontseilua	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
-IUPeko helburuetan baliabide digitalen erabilera egokia aintzat hartzen dela bermatzea.	IUPa	Klaustro osoa	2024-2025 ikasturtea	Hasita (%1-19)

##### Helburua

Digitalizazio dinamizatzailearen figura bultzatu IPDa garatu ahal izateko.

Deskriptorea	Epea	
LG 3.1 Inplementazio-planaren inguruan elkar aditze eta konpromiso bat dago	2024/2025 IKASTURTEA	
Adierazlea	Mota	Helmuga
LG 3.1 A1 Ikastetxeak irakasleek parte hartzeko egitura bat zehaztu du, bere estrategia digitala garatu	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Digitalizazio batzordea sortu eta astero IPDa garatu, hausnartu eta aurrera eramateko saio bat eskaini.	IPD-a Digitalizazio batzordea	Digitalizazio batzordea	2024-2025 ikasturtea	Hasita (%1-19)

## II Irakaskuntza eta ikaskuntza

### Helburua

Ikasleei proposatzen zaizkien ikas egoeratan IKTen erabilera bermatzen duten ekintzak proposatzea, ikasleen gaitasun digitala garatzeko.

Deskriptorea	Epea	
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean	2024-2025 ikasturtea	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.1 A2 Ikastetxeak hautatu / egokitu / garatu du programazioen jarraipena eta ikasleen ebaluazioa egin	Ehunekotan	%75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Urteko programazioetan Ikas-egoerak txertatzea eta hauetan baliabide digitalen erabilera bermatzea	Programazioak	Tutoreak Batzorde curricularra	2024-2025 ikasturtea	Hasita (%1-19)

### Helburua

Ikasleak IKTetan heztea, hauen erabilera egokia egin dezaten, zibersegurtasuna bermatuz.

Deskriptorea	Epea	
II 1.2 Lehenengo mailan jartzen dira online inguruneetako segurtasuna, arriskuak eta portaera arduratsua	2024-2025	
Adierazlea	Mota	Helmuga
II 1.2 A2 Lan-talde bat sortu du eta beharrezkoak diren saioak definitu ditu datuen babesari, identitate	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eskolako "netiketen" zerrenda sortzea.	Eskolako Netiketen zerrenda Eskolako gailu digitalak (ordenagailuak, pantallak...)	Digitalizazio batzordea Batzorde curricularra	2023-2024	Detektatua
Netiketa lantzeko INTERLAN eta NETIKETACHALLENGE egitea	Eskolako Netiketen zerrenda Eskolako gailu digitalak (ordenagailuak, pantallak...) INTERLAND NETIKETACHALLENGE	Digitalizazio batzordea Batzorde curricularra	2024-2025	Detektatua
Eskolan zehaztu diren netiketak gurasoei komunikatzeko saioak planifikatzea	Eskolako netiken zerrenda	Digitalizazio batzordea Klaustroko kideak	2024-2025	Detektatua

## GP Garapen profesionala

### Helburua

Ikastetxean dauden baliabide digitalak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko formazioa jasotzea; bai kanpo eragileen partetik eta baita irakasleen artean esperientziak partekatzeko uneak sustatzen.

### Deskriptorea

GP 1.1 Agerikoa da EGPren aldeko konpromisoa

Epea

2024/06/30

### Adierazlea

Mota

Helmuga

GP 1.1 A2 Irakasleen Harrera Planaren barruan, estrategia digitalarekin, baliabide digitalen erabilerarela

Ehunekotan

%60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Kanpoko formazioa	Kanpo agenteak	Digitalizazio batzordea Zuzendaritza	2024/06/30	Detektatua
Irakasleen arteko koordinazioa eta barne formakuntza.	Balibide digitalak Ezagutzak	Klaustroa Zuzendaritza	2024/06/30	Detektatua
Irakasleen arteko esperientziak trukatzeko uneak bilatu.	Balibide digitalak Ezagutzak	Klaustroa Zuzendaritza Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Detektatua

## EJ Ebaluazio jardunbideak

### Helburua

Konpetentzia digitalaren bidez ebaluazioa egiteko modu ezberdinak diseinatzea eta hauek programazioetan txertatzea (koebaluazioa, berdinen arteko ebaluazioa...)

Deskriptorea	Epea	
EJ 1.1 Ebaluazio formatiboaren helmena hedatzen da	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EJ 1.1 A1 Ikasgaien %75etan errubrikak erabiltzen dira irakasteko eta ikasteko prozesuetan, ikasleek be	Ehunekotan	%75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen ebaluazioa	Errubrikak	Tutoreak Batzorde Curricularra	2025/06/30	Detektatua
Berdinen arteko ebaluazioa (autoebaluazioa, koebaluazioa)	Errubrikak	Tutoreak Batzorde Curricularra	2025/06/30	Detektatua

## EC Edukiak eta curriculuma

### Helburua

Irakasleak euren material didaktiko digitala garatzea eta landutako edukien arabera sailkatzea; biltegi digitalaren (one drive) erabilera egokia eginez; egindako lana modu eskuragarri eta antolatua batean edukitzeko.

Deskriptorea	Epea	
EC 1.2 Edukiaren biltegiak zabalki eta modu eraginkorrean erabiltzen dira	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EC 1.2 A1 Departamentuak/mailek/zikloek, hilean behin gutxienez, eduki, jarduera, adibide eta/edo he	Ehunekotan	%75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasleen arteko koordinazioa, edukiak modu bateratu batean sailkatzeko.	Onedrive Ikas-egoerak modu digitalizatuan	Klaustro osoa Zuzendaritza	2024/06/30	Detektatua
Curriculum berrira egokitzen den material didaktiko berria sortzea. (Ikas-egoerak)	Curriculum berria Testu liburuak	Tutoreak Espezifikoak	2024/06/30	Detektatua

## EN Elkarlana eta networking-a

### Helburua

Irakasle berriekin mentorizazio sistema sustatu, IKT koordinatzailearen bidez eskolako ildo digitala ezagutzeko.

Deskriptorea	Epea	
EN 1.5 Barne-lankidetzeta eta ezagutzak trukatzeta espero da	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikastetxean teknologia digitalen erabilera zein den ondo zehaztuta dago eta etortzen diren irakasle berriekin	Bai/Ez	BAI

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Irakasle heldu berriekin eskolan egiten den ildo digitala modu argian azaltzen duen materiala sortzea, euskarri digitalean.	Outlook Onedrive Sortutako materiala bera	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Detektatua

### Helburua

Ikastetxeko sare sozialak, eskolako proiektu eta ekintzen berri emateko erabiltzea, astero bidalketa berriak eginez eta kanpoko eragileak (gurasoak, langileak...) ahalik eta gehien inplikatzuz.

Deskriptorea	Epea	
EN 2.2 Agerikoa da online presentzia dinamikoa	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
EN 2.2 A1 Ikastetxeak ikastetxearen komunikazio-plana, eguneratze-bitartekoak eta -prozedurak zehaz	Ehunekotan	%80

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Blogean (www.elejabarrieskola.eu) astero bidalketak egitean.	Eskolako bloga Eskolako baliabide digitalak	Tutoreak Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)
Egiten diren bidalketak gurasoekin partekatzea, Whatsapp eta facebooken bidez.	Eskolako bloga Eskolako sare sozialak (Whatsapp, facebook)	Digitalizazio batzordea	2025/06/30	Prozesuan (%20-39)
Whatsapparen erabilera egokia egiten dela bermatzea, EJ-ren datuen babeserako protokoloa oinarri hartuta.	EJ-ren datuen babeserako protokoloa. Eskolako whatsapp Sortutako den arautegia	Digitalizazio batzordea Klaustroa	2025/06/30	Hasita (%1-19)

### Helburua

Ikasle bakoitza ikastetxeko blogean egiten diren bidalketetan inplikatzeko, talde guztietan euren mailetara egokitutako bidalketak eginez, tutorea eta IKT koordinatzailearen laguntzaz.

Deskriptorea	Epea
EN 3.2 Pertsonala eta ikasleak elkarteetan aktiboki parte hartzera bultzatzen dira	2024/06/30

Adierazlea	Mota	Helmuga
Ikasleak eskolako proiektu digitalean modu aktibo eta eraginkorrean inplikaturik daude	Ehunekotan	%75

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Astero blogean egiten diren bidalketetan ikasleak inplikatzeko (haiek testuak idatziz, ideiak emanez edota argazkiak ateratzen).	Eskolako gailu digitalak Eskolako bloga	Digitalizazio batzordea Gela bakoitzeko tutorea	2024/06/30	Hasita (%1-19)
Blogean egiten diren bidalketek dakarten prozesu osoan ikasleak inplikazio aktiboa egitea; ideia sortzetik bidalketa egin eta partekatu arte. (3. zikloan)	Eskolako gailu digitalak Eskolako bloga Eskolako sare sozialak	Digitalizazio batzordea 3. zikloko tutorea	2024/06/30	Hasita (%1-19)

## AZ Azpiegiturak

### Helburua

Segurtasun neurriak zeintzuk diren ezagutzea eta hauek betetzen direla ziurtatzea.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.1 Erabilera arduratsurako arauak daude ezarrita	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.1 A1 Ikastetxeak protokolo bat du, datuen babesari buruzko legearen arabera pribatutasuna eta d	Ehunekotan	%60

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxearen segurtasun neurriak ezartzen dituen protokoloa zehaztea euskarri digitalean	Segurtasun protokoloa Onedrive	Digitalizazio batzordea	2024/06/30	Detektatua

### Helburua

Ikastetxeko gailu digitalen antolamendua berrikustea, hauek modu egokian erabiltzen direla ziurtatzeko.

Deskriptorea	Epea	
AZ 2.3 Edonoiz/edonon ikastearen oinarrian ikaskuntza digitalerako teknologia-sorta zabala dago	2024/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
AZ 2.3 A2 Ikastetxeak jarduera-protokolo bat du aurrez aurrekoa ez den hezkuntzako egoerei aurre egi	Ehunekotan	%70

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikastetxeko gailu digitalen antolamendua/ ordutegia sortzea eta denon eskura jartzea	Ikastetxeko baliabide digitalak Onedrive	Digitalizazio batzordea Zuzendaritza	2024/06/30	Hasita (%1-19)



## IB Ikastetxeko berariazkoak

### Helburua

### Deskriptorea

Epea

### Adierazlea

Mota

Helmuga


### Ekintzak

Baliabideak

Arduradunak

Epea

Egoera



## 4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	Noiz ebaluatu	Nola ebaluatu	Nork ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	IUpean interneten eta gailu eta baliabide digitalen erabilera egokia bermatzen duten helburua zehaztea.	2025 ikasturte bukaeran	- IUP Ikasturte bukaerako memoria	Klaustro osoa Zuzendaritza	Detektatua	
LG	Digitalizazio dinamizatzailearen figura bultzatu IPDa garatu ahal izateko.	2025 ikasturte bukaeran	IPD Digitalizazio batzordea	Digitalizazio koordinatzailea Zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)	
II	Ikasleei proposatzen zaizkien ikas egoeratan IKTen erabilera bermatzen duten ekintzak proposatzea, ikasleen gaitasun digitala garatzeko.	2025 ikasturte bukaeran	Programazioak IIP (Ikasleen Irteera Profila)	Tutoreak Batzorde Curricularra Zuzendaritza taldea	Detektatua	
II	Ikasleak IKTetan heztea, hauen erabilera egokia egin dezaten, zibersegurtasuna bermatuz.	2025 ikasturte bukaeran	IIP Programazioak Ebaluazio txostenak	Digitalizazio batzordea Batzorde Curricularra Klaustroideak Zuzendaritza taldea	Detektatua	
GP	Ikastetxean dauden baliabide digitalak ahalik eta ondoen aprobetxatzeko formazioa jasotzea; bai kanpo eragileen partetik eta baita irakasleen artean esperientziak partekatzeko uneak sustatzen.	2024 ikasturte bukaeran	Formazioa Ikasturte bukaerako memoria	Digitalizazio batzordea Zuzendaritza Klaustroideak Zuzendaritza taldea	Detektatua	
EJ	Kompetentzia digitalaren bidez ebaluazioa egiteko modu ezberdinak diseinatzea eta hauek programazioetan txertatzea (koebaluazioa, berdinen arteko ebaluazioa...)	2025 ikasturte bukaeran	Errubrikak - Ebaluazio txostenak	Tutoreak Batzorde Curricularra	Detektatua	
EC	Irakasleak euren material didaktiko digitala garatzea eta landutako edukien arbera sailkatzea; biltegi digitalaren (one drive) erabilera egokia eginez; egindako lana modu eskuragarri eta antolatuta batean edukitzea.	2024 ikasturte bukaeran	- Eskolako online biltegia	Klaustroideak Zuzendaritza taldea	Hasita (%1-19)	
EN	Irakasle berriekin mentorizazio sistema sustatu, IKT koordinatzailearen bidez eskolako ildo digitala ezagutzeko.	2025 ikasturte bukaeran	- IUP - Ikasturte bukaerako memoria	Digitalizazio batzordea	Detektatua	

EN	Ikastetxeko sare sozialak, eskolako proiektu eta ekintzen berri emateko erabiltzea, astero bidalketa berriak eginez eta kanpoko eragileak (gurasoak, langileak...) ahalik eta gehien inplikatuaz.	2025 ikasturte bukaeran	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolako bloga</li> <li>- Errubrikak</li> <li>- Programazioa</li> <li>- IIP</li> <li>- Ebaluazio txostenak</li> </ul>	Tutoreak Digitalizazio batzordea	Prozesuan (%20-39)	
EN	Ikasle bakoitza ikastetxeko blegean egiten diren bidalketan inplikatzeko, talde guztietan euren malletara egokituak bidalketak eginez, tutorea eta IKT koordinatzailearen laguntzaz.	2024 ikasturte bukaeran	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskolako bloga</li> <li>- Programazioak</li> <li>- IIP</li> <li>- Ebaluazio txostenak</li> </ul>	Digitalizazio batzordea Tutoreak 3. zikloko tutorea	Detektatua	
AZ	Segurtasun neurriak zeintzuk diren ezagutzeko eta hauek betetzen direla ziurtatzeko.	2024 ikasturte bukaeran	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasturte bukaerako memoria</li> <li>- Segurtasun neurrien zerrenda</li> </ul>	Digitalizazio batzordea	Detektatua	
AZ	Ikastetxeko gailu digitalen antolamendua berrikustea, hauek modu egokian erabiltzen direla ziurtatzeko.	2024 ikasturte bukaeran	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Errubrikak</li> <li>- Ikasturte bukaerako memoria</li> </ul>	Digitalizazio batzordea Zuzendaritza	Hasita (%1-19)	
IB						

